

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko otsailaren 11. VIII. urtea. 2.173. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

«laz lau egunetik behin herritar bat torturatu zuten Euskal Herrian»

AAMak Joxe Arregi hil arte torturatu zutenetik etzi 30 urte beteko direla ekarri du gogora; Maribi Arregi arrebak urteak pasa badira ere «torturak hor jarraitzen du» salatu du

Etziko torturaren aurkako egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Zizurkilen; gaur torturaren inguruko mahai-ingurua izango da Atxulondon 19:30ean **o4-5**



Herritar ugari bildu ziren «torturarekin amaitu behar dela» aldarrikatzeko Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. E.MAIZ

Laneratzea errazteko hiru ikastaro antolatu dituzte Tolosan

Osasun arloko zaintza, planoen interpretazioa eta sukalde laguntzaile lanak ikasteko izango dira; datorren asterako eman behar da izena **o3**



Azkue, Sarasola eta Otaegi atzoko agerraldian. I.GARCIA

NUTRIZIO KONTSULTAK:

Asteartero eta ostegunero eskaintzen dira 'DietaFacil' etxearen eskutik. Laser depilazioa (TAHE). Prezio ezin hobekak.



lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@gmail.com





Munduan zehar ibili dira taldekideak azken hamar urteotan. HITZA

Luar na Lubre folk taldeak 'Solsticio' lana aurkeztuko du gaur Leidorren

Taldearen hastapenetako ukituak hartu ditu euren musikak azken lan honetan

Erredakzioa Tolosa

Luar na Lubre taldea Galiziako tradiziozko folk musikaren munduan erreferentea da gaur egun. Leidor aretoan izango dira gaur, 20:30ean, beren azken lana aurkeztuz. 1986an Coruñan sortu zen taldea, helburu bezala Galizian bertako kultura gailentzea har-

tuz. Hala ere, kanpo-eraginak onartzen dituzte beren sorkuntza lanetan, betiere berezkoa duten izaera mantenduz.

Musika proiektu honek sustrai galiziarreko doinueta du oinarria, eta hain zuzen ere horregatik, taldekideek arreta berezia eskaintzen diete kantutegi galiziar garrantzitsueni. 1992an Mike Oldfield britainiarra ezagutu zuten, eta harreman estua sortu zen harrezkero. Oldfield-ek *O son do ar* kantuarien bertsio bat egin zuen bere lan baterako, eta honek bultzada handia eman zion talde galiziarri.

Gaur egun nazioartean oihar-

tzun gehien duen Galiziako folk banda da Luar na Lubre, eta munduan zehar aritu dira emanaldiak eskainiz. Besteak beste Portugal, Espainia, Frantzia, Italia, San Marino, Kroazia, Grezia, Txekia, Eslovakia, Hungaria, Alemania, Belgika, Herbehereak, Ingalaterra, Gales, Eskozia, Cabo Verde, Maroko, Palestina, Argentina, Uruguai, Brasil, Venezuela, AEB eta Kanada bezalako herrialdeetan izan dira.

Azken lana aurkeztera

Gaur iluntzean Leidor aretora bertaratzen diren ikusleek *Solsticio* izeneko taldearen azken lanaz

gozatzeko aukera izango dute. Pasa den urteko azaroan kaleratu zuten diska, eta bertan taldeak bere izaera, hots akustiko eta liriko, elementu poetikoak, kondairak eta metaforak berreskuratu ditu, musika eta bizitza ulertzeko duten modua zehaztuz. Diska honen proiektuaren hasierara bueltatu dira, *Plenilunio* lanaren arrakasta ekarri zuten doinueta. *Solsticio*rekin beraz, folk galiziarren muina itzuliko da, Erdi Aroko doinueta hasi eta gaur egungoetaraino. Sarrerak Kutxa kanalean nahiz Leidor areto-ko lehiatilan salgai izango dira 18 eurotan.

Tolosako Musika Bandak neguko kontzertua eskainiko du bihar

Musikaren munduan izen handiko konpositoreen sei obra eskainiko dituzte Zerkausian

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Musika Bandak Neguko Kontzertua eskainiko du bihar 19:00etan, Zerkausian. Guztira sei obra izango dira, eta obren egileak bertakoak nahiz kanpotarrak dira.

Luis Mari Gartzia Artetxeren gidaritzapean, tolosarrek Jose Maria Usandizaga donostiarra-

ren *Euskal festara* obrarekin hasiko dute saioa. Usandizaga piano-jotzaile eta musikagile bezala egin zen ezagun, eta euskal operaren aitzat hartu izan du zenbait, Jesus Guridirekin batera. Gero, Ferde Grofe estatubatuarren *On the trail* suit-a, George Gershwin-en obra bat, Edward William Elgar britainiarren *Pompas y circunstancias* eta Jef Penders musikari eta zuzendari holandarren *The laugh 'n' charleston* eskainiko dituzte. Kontzertuari amaiera emateko, Francisco Asenjo Barbieri madrildar zarzuelagilearen *El barberillo de Lavapiés* zarzuela interpretatuko du Tolosako Musika Bandak.

Bihar erabakiko da Beterriko IV. Bertsolari Txapelketa Villabonan

Erredakzioa Villabona-Aitzondo

Gaur ospatuko dute Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako finala, Villabonako Behar Zana elkarte-an.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako aurten goa ere hain berezia den txapelketa hau. Izan ere, ikuslegoak izaten du azken hitza saioetan, epaimahai lana entzuleei emanez. Bihar-ko finalean Donelontxo taldea (Ander Lizarralde, Jokin Labayen eta Unai Muñoa) eta Donelutxi taldea (Xue Alberdi, Ainhoa Agirrezabala eta Onintza Enbeita) ariko dira.

Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformaren batzar irekia asteartean

Erredakzioa Tolosa

Datorren asteartean batzar irekia egingo dute Tolosako kultur etxean Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideek. Tolosaldeko espezialitatean anbulatarioaren desagertzea eta pribatizazioaren inguruko berriak «larritzeko modukoak» direla diote, eta horregatik saiakera hau geldituko duen herri-mugimendu bat bultzatu nahi dute.

Gizarte guztiari deialdia luzatu nahi diete asteartean 20:00etan kultur etxeko batzarreko, alde-ridi politikoa hasi eta eragile nahiz norbanakoetaraino.

→ Laburrak

Beotibar pilotalekuko komunak berritu dituzte

TOLOSA > Aste honetan Beotibar pilotalekuko komunak itxuraldatu egin dituzte. Frontoia- ren beheko solairuan dauden bainugelak egoera txarrean zeuden, eta ez zituzten irisgarritasun baldintzak betetzen. Saneamendu arazoak ere bazituzten gainera. Ondorioz, duela hilabete batzuk udalak pilotalekuko komunak berritzeko proiektua martxan jarri zuten. Jada erabiltzeko moduan daude, eta publikoari irekiak izango dira. Oinarrizko konponketez gain, hoditeria guztia ere berritu dute, eta komunetako bat ezinduentzako egokitu dute.

Uzturre Asistentzia Zentroko apartamentuak

TOLOSA > Pasa den urtarrilaren 25ean Tolosako udalbatzak egindako osoko bilkuran, Uzturre Asistentzia Zentroan adineko autonomoentzako egindako apartamentu balioaniztunak esleitzeko oinarriak onartu zituen. Eskabideak egiteko deialdia jendaurreko egin du udalak, eta martxoaren 4ra bitarte zabalduko dute epea (egun hau barne). Eskabide eredu eta dokumentazioa Tolosako Udalaren webgunean nahiz udaletxeko erregistroan eskuratu ahal izango da.

Kirol jarduera ugari izango dira Usabal kiroldegian

TOLOSA > Asteburuan kirol eskaintza zabaldu izango da Usabal kiroldegian. Ostiral iluntzetik hasita, nesken nahiz mutilen areto futbol izango da, eta baita saskibaloia ere larunbat goizean. Kanpoko futbol zelaian hainbat partida jokatuko dituzte larunbatean eta igandean, eta eskubaloia partida bat ere izango da. Era berean, asteburu osoan zehar Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa ospatuko da.

Euskal Herria plazako sarbideen berritze lanak

TOLOSA > Euskal Herria plaza oinezkoentzako gune bilakatu da azken hilabeteotan, eta plazarako hiru sarbideak zaharberrituko dira datozen asteetan. Aste honetan Andia kalean hasi dira lanean, eta gaur egun Atadi kaleak duen itxura hartuko du. Beste bi sarbideetan Inauterien ondoren egingo dituzte obrak.

→ **Laburrak****Ostiral Meheko danborradaren bilera**

TOLOSA » Tolosako Inauterietan, Ostiral Mehean egiten den danborradaren antolatzaileek bilera antolatu dute. Danborradan atera nahi duten guztiei gonbitea egiten diete bilerara azaltzeko. Kultur etxean elkartuko dira, gaur, 19:00etan.

Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa

ALBIZTUR » Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu dute gaur Albizturren. Herriko Ostatuan egingo da lehiaketa, 22:00etan hasita. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar ditu eta izena lehiaketa hasi aurretik eman daiteke. Irabazleek ardo botilak jasoko dituzte sari bezala eta Gipuzkoako finalerako sailkatuko dira. Finala Seguran jokatu da hilaren 23an, Elorri elkartearen.

Agate Deuna bezperako taldearen esker ona

IKAZTEGIETA » Agate Deuna bezperan ikaztegieta abesten ateratzen den emakume taldeak eskerrak eman die herritarrei. Jasotako «harrera beroa» eta «limosnarekin erakutsitako eskuzabaltasuna» eskertu du. «Umore onean arratsalde eder» igarotzen dutela diote taldeko kideek eta hurrengo urterako nahi duten guztiei parte hartzeko gonbita luzatzen diete.

Bost film ikusgai Tolosan eta Villabonan asteburuan

ZINEMA » Tolosako Leidorren haurrei zuzendutako *Enredados* filma ikusi ahaliko da bihar eta etzi 17:00etan. *Planes para mañana* bihar 19:30ean, etzi 22:00etan eta astelehenean 20:30ean (ikuslearen eguna) proiektatu dute. *Camino a la libertad*, aldiz, bihar 22:30ean eta etzi 19:30ean. Villabonako Gurea aretoan *Carancho* filma bihar 19:30ean eta 22:15ean, etzi 19:30ean eta astelehenean 21:30ean ikusi daiteke. *El pequeño Rey Macius* etzi 16:30ean eskainiko dute.

Intxurre elkartearen partidak asteburuan

PILOTA » Intxurreko jubenil mailako pilotariek Euskal Ligaren baitan Amurrión jokatu dute partida, etzi, 11:30ean. Bestalde Udaberri txapelketako partidak izango dira gaur ikaztegieta eta Alegian 19:00etan eta Altzon bihar 16:30ean.

Enplegua sustatzeko prestakuntza egitasmoa bultzatu dute

Tolosaldea Garatzenen eta Tolosako Udalaren ekimenez, laneratzea helburu duten hiru ikastaro antolatu dituzte

Imanol Garcia

Langabetuei zuzendutako heziketa egitasmoa jarri dute abian Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak. Hiru ikastaro eskainiko dituzte oraingoz: osasun arloko zaindaria, planoen interpretazioa galdaragintzan eta sukalde laguntzailea. Ikastaroei eskualdeko prestakuntza beharrei erantzuna eman nahi diote bi erakundeek. 2010ean arlo horretan eskumena duen Eusko Jaurlaritzak ez duela behar bezainbeste dirua bideratu uste dute bi erakundeetako ordezkariak. Sortutako hutsunea betetzeko asmoz bideratu dute enplegua sustatzeko prestakuntza egitasmoa.

Jokin Azkue Tolosako Hirigintza zinegotziak, Aitor Sarasola Alegiako alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariordeak eta Leire Otaegi Tolosaldea Garatzeneko Enplegu eta Prestaketa saileko arduradunak eman dituzte egitasmoaren xehetasunak Alegiako udaletxean egindako prentsaurrekoan. Ekimenak 120.000 euroko aurrekontua du eta erakunde bakoitzak erdia jarri du.

Ikastaroei dagokionez, sukaldari laguntzailearenak 250 ordu ditu, planoen interpretazioarenak 120 ordu eta osasun arloko zaindaria 110 ordu. Izena emateko ezinbestekoa izango da Tolosaldea Garatzeneko Lanbide zerbitzura joatea. Epeei dagokionez, osasun arloko zaindaria ikastaroen hilaren 14rako eman behar da izena eta beste bietan hilaren 18rako.

Leire Otaegik zehaztu duenez, ikastaroen parte hartuko dutenek «ahal den perfil egokienak izaten saiatuko gara, laneratzea erraztu nahi dugulako. Horregatik zenbait baldintza jarri ditugu izena emateko».

Beste ikastaro batzuk

Otaegik azaldu duenez, «herri administrazioek ez dute zertan enplegua sustatzeko prestakuntzaren finantziazioa egin behar. Baina hutsunea dagoen bitartean prestakuntza jarduerak hauek aurrera eramateko prestutasuna agertu dugu».

Hasiere batean aipatutako hiru ikastaro martxan jarriko dituzte. Aurrera begira, Eusko Jaurlaritzaren aldetik finantzia-



Jokin Azkue, Aitor Sarasola eta Leire Otaegi, prentsaurrekoaren une batean. I. GARCIA

↓ Ikastaroen parte hartzeko baldintzak

- Langabezi txartela izatea.
- Lanbide izena emanda egotea.
- Prestakuntza egin eta gero lanean hasteko aukera izatea lehenetsiko da.
- Jarduera aurrera eramateko ezintasun fisiko nahiz psikologikorik ez izatea.
- 2011ko otsailaren 9rako Tolosaldean errodatua egotea. To-

- losako Udalak egindako ekarpen ekonomikoa dela eta, parte-hartzaileen erdia Tolosakoak izango dira.
- Bi hizkuntza ofizialak –gutxienez gaztelera– ongi menperatzea prestakuntza ondo aprobetxatzeko.
- Gizarte zerbitzuen oinarriko errenta jasotzea kontuan hartuko da.

- Sukaldari laguntzaile ikastaroan izena emateko, ordutegi aldetik malgutasuna izatea.
- Planoen interpretazioaren ikastaroaren kasuan, kontuan hartuko da interesatuek galdaragintzan duten eskarmentua.
- Zaindari ikastaroan ikasleen %40a gutxienez 45 urtetik gorakoa izan beharko du.

ziorik ez bada bideratzen, beste ikastaro batzuk antolatzea aurreikusten dute: elektromekanikako langilea, kalefakzioa eta klimatizazioaren inguruko, osatlaritzaren alorreko, defektologiaren inguruko, marketin eta erakuslehoak apaintzeko ikastaroa, eta administrazio alorreko ikastaroa. Martxotik aurrera hasiko lirake ikastaro horiek eta

Ekimenak 120.000 euroko aurrekontua du eta erakunde bakoitzak erdia jarri du**Parte-hartzaileek ikastaroetako perfil egokiena izateko baldintzak jarri dituzte**

izen-ematea otsailaren zehar izango da.

Tolosaldea Garatzenetik enplegurako prestakuntza bultzatzeko arrazoiak eman ditu Aitor Sarasolak. «Oso kontziente gara krisi

egoera latz batean gaudela eta 2008tik ari zaigula jotzen. Krisiak enpresa txiki asko ixtea ekarri du eta handixeagoak EREan sartzea. Horren ondorioz langabezi tasa asko igo da eta horregatik ikusi dugu aurrean ahalguz berezia egin behar dela langabetuei prestakuntza eta orientazioa ematen».

Sarasolak gogora ekarri du 2007an egindako lehiakortasun diagnostikoa eta 2016ra begira eszenatoki berri bat planteatzen dela, «hara iristeko ardatz estrategikoak eta helburuak ezarri eta hauek burutzeko jardueren proposamenarekin». Egungo egoeran, garapen agentziak langabetuei bai formazioan eta bai orientazioan babesa emateko erantzukizuna hartzen duela azaldu du.

Krisiaren aurkako batzordea

Bere aldetik, Jokin Azkuek Tolosako Udalak prestakuntza egitasmoa bultzatzeko arrazoiak azaldu ditu. «Gure eskumena ez bada ere, konpromisoa dugu enplegua

sustatzeko», esan du. «Alor horretan eskumena dutenak aurreko urtean orain arteko diru gutxiena jarri dute eta horren aurrean konpromiso garrantzitsua hartu dugu enplegua sustatzeko. Espero dugu dagokien erakundeek aurreko diru gehiago jartzea».

Tolosako Udalaren kasuan, orain bi urte osatu zen krisiaren aurkako batzordetik proposatu da enplegua sustatzeko prestakuntza bultzatzea. Hamabostean behin elkartzen da eta bertan udaleko alderdiak eta Tolosaldea Garatzen daude ordezkatuak.

Batzordean bi eratako neurriak hartzen direla zehaztu du Azkuek. Alde batetik, udalari berari begira, kostuak nola aurrera daitzekin enplegu ikusiz eta horren inguruko neurriak hartuz, eta bestetik, kanpora begira, gizarte-ari begira zein jarduerak egin daitzekin enplegua sustatzeko. Hirigintza zinegotziak bigarren esparru horretan kokatu du Tolosaldea Garatzenek bideratuko duen prestakuntzari Tolosako Udalak laguntza ematea.

Oinkari taldekoak 'Ari du' lan berria prestatzen ari dira

Erredakzioa Villabona

Oinkari dantza taldea emandali berri baten prestateta lanetan buru-belarri murgilduta dago. Aipatzen ari gara hurrengo astea *Ari du* izena du.

Itxuriaz berri honetan, Oinkariaren heburua, euskal kulturaren hain presente dauden dantza, eta euskal literaturako poesian arteen urtaroketa egitea izan da «Ari du» izenaren abetsuan errezitatuko diren poesiak, eurak duen errotismo markatuko dutes ditue taldekoak. Oinkari dantza taldeak, errotismo honetara egokituiko ditue bere dantzak; bai tradiziozko zuzeneko ekarritakoak, baita garaikidera moldatutakoak ere.

Guztira 75 dantzarri izango dira eszenatokian, 9 musikariren laguntzarekin, 9 musikariren laguntzarekin.

Dantza zuzendaria, Edu Murrumendiaraz izango da. Musika-kariak berri, Iostu Musika Eskola-kolokak izango dira eta musika zuzendaritza lanak Garazi Esnaola-ek egongo ditu.

Poetikaren ardurua, Juan Krux Igerabiderena izango da eta soinuteknikaria, Unai Moraza eta argi teknikaria, Iker Ugaldue izango dira.

Estreinaldia, Leidorren Ari du Iruskimna Tolosako Leidor Antzokian estreinatuko dute. Oraindik denbora dute prestateta lanetarako baina da goeneko sarerak salgai jarri dituzte. Emanaldia apirilaren 15ean, 22:30ean izango da. Sarerak eskuratzeko sarrera www.ari-du.net webgunean dago.

Bitartean, Korrontziketkin batera, azarotik aurkuztatuko DVDaren aurkezpen emanaldia burutzen jarraitzen dute.



Ari du izena du Oinkariaren lan berriak.

HITZAren eskutik

EHren 30 urteko historia, Iratzen gogorren hartze, etorkizuneko errotik marrazteko.

10€

EGIN ESKAERA otsailaren 13a baino lehen harpidetza@hitza.info 902-82 02 01

berria taldea



Tolosaldako ordezkariek Zuzurkilen bildu ziren, asteazkenean. E. IMAZ

Hitzaldia, mendi martxa eta ekitaldia antolatu dituzte torturaren amaiera eskatzeko

Atxulondo Kultur Etxean torturaren inguruko mahi-ingurua egongo dute gaur 19:30ean

Erredakzioa Zuzurki

Tolosaldako Amnistiarren Aldeko Mugimendua hainbat ekitaldi antolatu ditu Zuzurkilen, igandean torturaren aurkako eguna dela balaituz.

Ekitaldi hauei berri emateko egindako ageraldian urteen joan-etorriaren torturaren infernua presenten egoten jarraitzen duela Euskal Herrian salatu zuten. «Hilabeteen joan-etorriaren, tortura salaketak pilatuz doza epaitegietako artibotatzen», argitu zuten.

Euskal Memoria Fundazioak jaso dituen datuen arabera, azken 50 urtetan 10.000 euskal herritar baino gehiago izan dira bahakaria hain sufritu dutenak. «Euskal Herriaren aurkako errepresio orotan, tortura egunerok erabili dute usan-usheko gobernu ezberdinek», gaineratu zuten.

«Tortura sistematikoa dela esaten dugu, eta atzen utzi dugun urtea da esaten dugunaren salbidie argia», azpimarratu zuten. «2010. urtean, 60 euskal herritar torturatu dituzte eztaiek, gaurdik zibiliek eta Espainiako politisak, gaineratu zuten.

Iazko urteari dagokion datu esanguratsua azaldu zuten, izan

eris-eris dau egusetik behera, herritar bat torturatu zuten politikari Euskal Herrian.

Euskal Herrian aro politikorik bereirik izan ez duen egunak ari diren honetan, Espainiako Gobernuak, bide hau otzopatzeko bere arma nagusienetakoa, tortura ihurtu duela dio.

Amnistiarren Aldeko Mugimenduko kideen ustez, «ezpainarrak» da ETA erakundearen aldetik etorri diren distentsio konpainen aurrean torturaren erabilera arazoetako baina ez dutela egin politikari. Eta horiek, argiki, helburu politikoko bidez erantzuten dituzte. Espainiako Gobernuak tortura erabilizko erabaki politikoa mantentzen du.

Mobilizazioak

HITZALDIA

• **Gaur**, Atxulondo Kultur Etxean 19:30ean elkar-urko dira. Bertan eskualdeko kazetari batek, mediku batek eta Torturaren Aurkako Taldeko kide batek parte hartuko dute. Torturaren inguruan hitz egongo dute.

MENDI MARTXA

• **Igandean**, 09:00etan Pedro Mari Otazo plazatik abiatuko dira eta mendi martxa egongo dute Haizetara. Handik bueltatuz egin ostean, 13:00etan, ekitaldia izango da Jose Arregi Plazan.

tikoa mantentzen du, bahakaria handi erabilari ere. Azken hilabeteotan, Euskal Herrian torturaren aurkako mobilizazio eta ekimen ugari burututa ere dirala azaldu zuten. Baina «argi dago egindako ez dela nahikoa izan. Tortura salaketak baina besterentzat atzeratuz komisiarietarik eta Espainiako Entzuztegi Nazionalerik». «A.Maren iritziz «argi dago, torturaren aurkako lana biderkatzea dagokigula oraindik».

Torturaren aurkako eguna Ertzi, hilak 13, 30 urte beteko dira Jose Arregi hil arte torturatu zutenek, igandean.

Egun horretan, gogorren izango dituzte Jose Arregi eta torturak hil dituen beste hamabi euskal herritarrek ere: egun horietan torturaren aurkako meza berriz kalera aterako dugu».

Era beretan, herritarrei dei egin zuten datu beren baxioa Zuzurkilen antolatu diren ekitaldietan parte hartzeko eskatu.

Lahena, gaur bertan izango da 19:30ean. Atxulondo Kultur Etxean elkar-urko dira eta bertan eskualdeko kazetari batek, mediku batek eta Torturaren Aurkako Taldeko kide batek parte hartuko dute.

Igandean, hilaren 13an, 09:00etan mendi martxa egongo dute Haizetara. Handik bueltatuz egin ostean, 13:00etan, ekitaldia izango da Jose Arregi Plazan.

Maribi Arregi • Joxe Arregiren arrea

Joxe Arregiren atxiloketa eta heriotza irratiz entzun zuten senideek. Ondoren, gorpua eta torturen ondorioak ikusi zituzten: herriko plazan eta munduari itzulita eman zuten argazkietan.

«30 urte pasatu dira baina torturak hor jarraitzen du»

Astier Imaiz Zuzurki

Otsailaren 13a egun «triste» eta «gogorra» izango da Maribi Arregiren (Zuzurki, 1947), onotzape-nepek «dena berritzea» ekarriko baitu. Torturak hor jarraitzen duela dio, ez dela oraindik amaitu. «Ea oraingo berri hasekiki zerbait aldatzen den, baina odol ez dala ahalerikako izan».

Zer izaten duen astea begiritzen duzuen?

Bere hil zutenetik 30 urte pasatu dira eta oraindik torturak hor jarraitzen duela. Inkomunikazioa eta lege antiterroristak irauten daen bitartean, arrisku bizian gaude denek. Horrekiko biktari behar dela ikusten du.

Memoria historikoa, biktimak...

Ikilik egotea hobea. Izugarriko ankeria sortzen dit gaitak. Dirudenez alde bakarrek biktimak daude berriz eta justizia ere bantzen datu bakarrik dago egia. **Jose Arregi hil zutenen aurkako epailetza egiten.**

Alfer alferrik. Begira, 73 politzi izan ziren bera torturatuaren aktari zirenak. Uste dit haiek biktari bakanrik esperantzatu zituztela. Baina, zerbait esateagatik, hiru hilabeteko zigorra jarri baitzuten. Gero, berri, bularrak medikalizatez bete zuten. Batek Kanariar Iherroetan polizia buru baktatu zuten, besteak.

Bederatzi egun inkomunikaturik. Hilaren 4an harrapatu zuten eta 13an hil zen. Bederatzi egun bantzen pasatu zuten pasako zituen. Gorpua ikusi genuen, berrak esan zuten bezala, oso latza izango zen. Zolantzarik gabe. Era bat txikituta, zapalduak, erret... gogorra.



E. IMAZ

Nola hasitzen dena?

Tiroketa bat eta atxiloketa bati trank egin zirela entzun genuen irratiz. Hasieran Jose zuzurkiki zegoela esan ziguten, baina gero ezetz, zauritua bere lagun bat zela. Atxiloketa eta inkomunikaturik jarri zituzten, ez zegoen biktari. Senideak astebaruan hara joatekoak ziren eta bidaiatuz prestoen ari zirenean enperatu ginen nola hil zen, berriro ere irratiz.

Urtetze ere kostatzen da.

Badakituz ere dute la maitatuko, agian tratu txarrak jasan behar izan dituek, baina, hainbestetarako izango zenik, inolaz ere ez inonkik inora. Izugarriko kolpea izan zen.

Ondorengo egunak nola gogoratzen dituzte?

Izugarriko mugimendua izan zen. Gero, hilkutsu prezintaturik bidali zuten, ez irakitzeko aginduarekin. Orduan plazan ireki

Joxe Arregiren lekukotza: «Oso latza izan da!»

Bederatzi egun inkomunikaturik egon ondoren, jasandako torturen ondorioz hil zen Zuzurkildarra

Hil aurkeko egunetan, Carabanchel espetxeko ospitalera eman zuten. Mediku tostestak, bestek beste, hainak zuzurkiki aipatzen zuten: «Eskurako begiaren inguruan hematomak eta begien isuri konjuntibalak hainbat hematomak eskutan besoen, bi besoen argian eta hanketan; hematomak handiak ipurmasaletan; bigarren graduko erreudak oinen argian; eta birika bat erlatiboki putzuta».

Torturatzaleak

Madrilgo Giza Eskubideen Batzordearen arabera 73 politikari izan zuten parte Jose Arregiren lekukotzetan. Hainbat bi lekukotza prosatu zituzten: Antonio Gil Rubiales eta Julian Marin Ros. Bi aldiz absolturatu izan ondoren, 1988an, Espainiako Auzitegi Gorenak hiru hilabeteko atxilo aldiz jarri zuten.

Epakietan Julian Marinnek, Arregi atxilotu eta galdokatu zuten polizia taldearen buruak, berrak zahar bilakatu zituzten: «dekin eta ezaguna da terroristek autolesionatu eta gero, tratu txarren aurkako salaketak jartzen dituzte».

Carabanchelko ospitaleraren zuzendari Agirre ETA (p.e), Xose Lote Fernandez Gonzalez, GEA-PC, eta Luis Alonso Riveirok, PCE (7)ko kideak, Jose Arregirekin egoteko uherra izan zuten. Zuzurki

egin zen. Gorpuzta ikusi genuen, erabat torturatu... jondoa oso bero zegoen. Manifestazio handiak egin ziren, baita greba orokorra ere... **Argazkien historia 2009an argitu zen.**

Hasieran Carabanchelen ateratakoak izango zirela pentsatu genuen. Gero enterratu ginen ezetz, gorpua hilerrik atzeratu eta argazkiak atzeratu zituzten. **Berria 2009an argitaratu zuten historia hori.** Munduari buelta eman zuten argazki horiek; gorpuzta gurtia nola zegoen ikusten zen, esan bezala, erabat txikituta, erreta... **Maria Angeles Lazkanon buru zen 25. urteko Udalak aurrer, 2007an, Jose Arregi plazari izena aldatu zion.**

Golpe gogorra izan zen. Ama oraindik bizi zen eta zer gertatu zen esan nioezan, gogotik negar eginez, Joxe bigarren aldiz hiltzea bezala izan zela esaten zuten.

Joxe Arregiren oinak, erreduera markekin. IMAZ OZULU/LAURENDA/ALBERTO BERRIO

kidarraren lekukotza jaso ondoren, prentsa-argitza bati bidali zuten. «Oso latza izan da» esaldiarekin laburbildu zuten Arregiren tortura berrigintza.

Azken honen egoera ikusita, espetxe zuzendariek ospitale zibil batera eramateko agindua eman zuten, baina ez zuten biktari irten bertatik. Autopsiaren arabera, Jose Arregiren heriotzaren eragile nagusia lumboneumonia izan zen. Santi Brouard HAKSko presidentek eta sendagileak alferri zuten, *berriro* izenez ezagutzen den tortura motak bakarrik eragin zezakeen bronkonumonia hori.

Torturatzaleak Madrilgo Giza Eskubideen Batzordearen arabera 73 politikari izan zuten parte Jose Arregiren lekukotzetan. Hainbat bi lekukotza prosatu zituzten: Antonio Gil Rubiales eta Julian Marin Ros. Bi aldiz absolturatu izan ondoren, 1988an, Espainiako Auzitegi Gorenak hiru hilabeteko atxilo aldiz jarri zuten.

Epakietan Julian Marinnek, Arregi atxilotu eta galdokatu zuten polizia taldearen buruak, berrak zahar bilakatu zituzten: «dekin eta ezaguna da terroristek autolesionatu eta gero, tratu txarren aurkako salaketak jartzen dituzte».

Carabanchelko ospitaleraren zuzendari Agirre ETA (p.e), Xose Lote Fernandez Gonzalez, GEA-PC, eta Luis Alonso Riveirok, PCE (7)ko kideak, Jose Arregirekin egoteko uherra izan zuten. Zuzurki



Joxe Arregiren oinak, erreduera markekin. IMAZ OZULU/LAURENDA/ALBERTO BERRIO

PILAR GOYA ESTETIKA ZENTROA

Errota 2. behe • Villabona Tel.: 943 69 13 66

- Diodo laser (gizon/koentzart eta emakumezkoentzart)
- Aurpegi-tratamendua
- Zimurken beterri-tratamendua ama zelulekin
- Urrezko xafiak
- Azalaren aholkularitza doan
- Oinon eta eskuan tratamendu eta edertasuna (raspen lukeko esmalteak)
- Solarium bertikala, 10 minutu
- Solarium horizontala, 20 minutu
- Bainuen aurrekontu eskatu
- Depilazioa erabilerak bakarrek argizariarekin



Ezker abertzaleko ordezkariak, asteazkenean emandako prentsaurrekoan. M.UGARTEMENDIA

Arau ordezkatzailak «kontraesanez beteta» daudela salatu dute

Ezker abertzaleak dokumentu honen akatsak salatzeak alegazioak sartuko dituela iragarri du

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako ezker abertzaleak udalak orain gutxi onartutako arau ordezkatzailak akatsak dituela salatu du eta alegazioak sartuko dituela iragarri.

Horiek horrela, onartu berri diren arau ordezkatzailen tramitazioa «akats larri, interes pertsonal, presa eta utzikieriaz beterikoa» izan dela salatu zuten asteazkenean eskainitako prentsaurrekoan.

Bilboko Arkitektura estudio bat izan da arau ordezkatzailak idatzi dituen dokumentu hauek «kontraesanez beteta» daudela esan zuen ezker abertzaleak. Izan ere, «udaletik sartutako presaren ondorioz eta arauak idatzi dituen arkitektura estudioaren alferkeriaren ondorioz, 2005ean Diputazioak atzera botatutako dokumentua oinarri hartu» baititu.

Horrela, araudira egokitzeko dokumentuaren planoak eta fitxa urbanistikoak pixka bat aldatu dituztela, baina idatzizko zatia lehengo dokumentutik «zuzenean kopiatutakoa» dela esan zuten agerraldian. Ondorioz, «dokumentu guztia kontraesanez beteta» dago.

Gainera, «arauak egiteko behar den ikerketa sozioekonomiko berririk ez dutela egin» ere aipatu zuten, 2002an egindako eta 2012an epemuga duten ikerketan oinarritu direlarik.

Arau berrien arabera «Ibarrako ia lursail guztiak eraikigarri» klasifikatu dituzte eta honela ezker abertzalearen esanetan «herriaren etorkizuneko garapena erabat hipotekatu» dute.

Herriarentzat hain garrantzitsua den kudeaketa batean parte guztiek izan duten «inkompetentzia eta interes partikularrak lehenetsi izana» ere salatu zuten.

Azkenik, ezker abertzaleak dokumentu honen akatsak salatuz alegazioak sartuko dituela iragarri zuten.

Miresmena eta zama bat eginik Perurena abizenean

Atzo estreinatu zen Perurenatarrei buruzko dokumentala; hilaren 19an ETB1n ikusi ahal izango da

M. Ugartemendia Leitza

2003. urtean Euskadiko Sei Orduetan Iñaki Perurenak marka hausteko azken ahalegina egin zuen. Baita lortu ere. 1.700 aldiz altxa zuen 100 kiloko harria. Bere semeak, Inaxiok, lehen ahalegina egin zuen Anoetan. Berak, ordea, ez zuen lortu. Orduantxe hasi zen atzo iluntzean Donostiako Antzoki Zaharrean estreinatu zen *Perurena* dokumentala.

Dokumentalean gai garrantzitsua da abizenaren zamarena. Inaxio lehen aldiz plazara bost urterekin ateratu zen, 11 kiloko harria altxatzerako. Egun hartan bertan

kazetari batek aitaren marka noiz lortuko zuen galdetu omen zion. Inaxiok beti jasan behar izan ditu konparaketa horiek. Dokumentalaren zuzendari den Jon Garañoren ustez «konparazio horrek hor jarraitzen du» eta «ez zaio bidezkoa» iruditzen.

Peru Harri museoa egiten ari ziren Garaño dokumentala grabatzen hasi zenean. Erakustaldietan, markaren batean edo base-rriko lanetan ere grabatu ditu Perurenatarrak.

Dokumentala Inaxiok Asteasun 2009ko abenduan, 300 kiloko harria altxatzeko saiakerarekin hasi eta bukatzen da. 2003 eta 2009 arteko bidea islatzen da pelikulan. Baina, bertan Iñakik plazan egindako lehenengo agerraldietako bat ere agertzen da, esate baterako.

Dokumentala ETB1n ere ikusi ahal izango da hilaren 19an, 22:00etan.



Iñaki eta Inaxio Perurena dokumentalaren aurkezpenean. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzten diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagarria izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Arrospide Urrezko Aizkolarien finalaurrekoetan

Mugerza II. arekin batera ariko da Nazabal eta Jauregiren aurka; saioa etzi izango da Munitibar herrian

Erredakzioa Leaburu

Igande honetan jakingo da zeintzuk izango diren Eusko Label Binaakako Aizkora Txapelketako Urrezko Mailako finaleko lehen aizkolariak. Saioa 12:00etan izango da Munitibarren (Bizkaia). Era berean, B taldeko Zilar Mailako finalistak eta garaileak ere igandearen egazutuko dira.

Oiz mendia magalean dagoen herrian Leaburu Anjel Arrospide eta Olatz-Mutrikuko Ugaitz Mugerza II.a ariko dira Etxarri-Aranazko Floren Nazabal eta Ilarduia (Araba) Arkaiz Jauregiren aurka. Lehen bikotea A taldeko garaileak dira eta

beste biak, aldiz, B taldeko lehen sailkatuak.

Igande B taldeko Zilar Mailako finalaurreko ere ikusi ahal izango da. Maila honetan ez dago eskualdeko ordezkariarik, ordea. Arostegiko osaba eta iloba ariko dira batetik, hau da, Manu Kañameres I.a eta Julen Kañameres III.a, eta Juan eta Jon Rodriguez aita-semeak, bestetik.

Finala hilaren 27an izango da Azeptiko Izarraitz frontoian eta bertan parte hartzeko txartela eskuratu dute jada A taldeko irabazleek, Xabier Dorronsorok eta Aratz Mugerza III.ak, hain zuzen ere.



Anjel Arrospide leaburuarra. HITZA

Herri kirolen historia biltzen duen liburua, kalean

Nafarroako Herri Kirol Federazioak argitaratzen duen zazpigarren monografikoa da

Erredakzioa Areso

Nafarroako Herri Kirol Federazioak **Herri Kirolak: jatorria eta ezaugarriak** izeneko liburua argitaratu berri du. Liburua ateratzeko laguntza izan dute, tartean Areso-Araiz-Betelu-Larraun-Leukunberriko Kirol Mankomunitatearena.

Bitxikeria ugari

Azken argitalpen honetan herri kirolari buruzko zenbait argibide bildu dituzte: sorrera, ezaugarriak, garapena, gaur egun ezagutzen ditugun modalitateak, galdutuz diren beste zenbait kirol, bitxikeriak... Liburuan datu historiko

asko ere topatuko ditu irakurleak.

Eskaera egiteko moduak

Lana euskaraz eta gaztelaniaz dago eta Nafarroako Herri Kirol Federazioan banatzen da baka-ririk, Sunbillan. Eskaera egiteko 948 45 09 00 telefono zenbakira deitu ahal da edo **herrikirolaknafarroa@hotmail.com** helbidera idatziz.

Federazioak aspaldi hartu zuen herri kirolak zabaltzeko konpromisoa, eta honakoa zazpigarren emaitza da, aurretik harri-jasotzea, aizkora, trontza, iparraldeko jokoak (6 mota), sokatira eta sega gaiak lantzen dituzten monografikoak atera baitituzte.

Liburu hauetan arlo tekniko eta araudia ongi aztertzen dira kirol bakoitzean, orain arte inoiz ez bezala. Beste alde batetik, bertako kirolei buruz dagoen bibliografia urria zabaldu dute, erreferentzia berria sortuz.

Uzturpe ikastolak 2.300 euro bildu ditu Haitirako

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Uzturpe ikastolak Save The Children Gobernuz Kanpoko Erakundeak proposaturiko **Elkartasun kilometroak... Haitiko haurrei laguntzeko** kanpaina hartu zuen parte. Burututako jardueren artean plazan hasi eta Emeterio Arrese parkeari itzulia emanaz prestatutako zirkuitua aipatu behar da. «4 kilometro simboliko zituen ibilaldia prestatu genuen. Ikasleek 'kilometro' bakoitzerako dirua emateko prest zeuden 'babesleak' bildu behar izan zituzten», argitu dute. «Elkartasun Kilometroaren helburua Haitiko haurren bizimodu berreraikitzen laguntzea da. Ekintza oso ondo atera zen eta parte-hartzaile guztiak gustura aritu ziren. Eskuratutako 2.300 euroak Save the Children GKE-ren kontuan sartuko dute», gaineratu dute. Horiek horrela, «guztion interesa eta esfortzua» eskertu dute Uzturpeko Bizikidea Behatokitiko partaideek.

tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

Astebetean arazatutako 15.000ak artez jantziak eragileak soilik argitaratuko dira. IRAGARKIAK: JARTZEKO www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com / 943-655677 telefono zenbakia

Higiezinak

SALBU
Tolosa. Leku erdigunean, altzari gutxi horituriko apartamentu salgai. Garaje eta tresneriaekin. Interesatuak, deitu 667-492557 telefono zenbakia.

Bitxitxak

HOTZORAK
SALBU

Motora. Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta erregenerazio onenek. Haren aurretan jarriko dugu 635-75 09 15 telefono zenbakia.

LANEKO ENBROAK
LANEKO ENBROAK
ALBIZKALDEA. Alemaniara eta ingelesez menderatzen dituen pertsona lantzen gaitza telefono

no arreta zerbiztuan lan egiteko. Interesatuak deitu 943-3186 00 telefono zenbakia edo bidali kurrikuluma una@logkline.com posta elektronikora.

Garbitzaile. Tolosaldeko ostalaritza-erpresa batetik, garbitzaile behar da. Interesatu gero, barbarrosa@

hotmail.com helbide elektronikoa bidali behariko dute Carriñan Vitar-a.

NEGOTIOAK/ TRASPASOAK
ERRENTAN EMAN
Alegia. Alegria, leoparidegi bat alkatatzen da. Interesatuak deitu 665-70 82 08 telefono zenbakia.

ARAMBURU Town administration Higiezinaren kudeaketa
943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aramburunet.net

- SALGAI**
- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan, Nafama.
 - **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
 - **Garaje ibidai eta iriak.** Tolosa, Ibarra eta Iruan.
- ALOKATZEKO**
- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Heneroso kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
 - **Garajeak.** Laramendin, Tolosan.
 - **Txokoa.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezkio ohea eta terraza, Barañbaran.
 - **Lokala** lurre azuarri, Tolosan.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezinaren zerbiztuak

Aia. Erakuntza berria. 3 logela, 2 banugela eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezo onen. 28.500.000 pezeta.

Getaria. Herrenieta kalean. 3 logela eta 2 banugelako etxebizitza. Traxelekuzaren. Egurren onen. 41.000.000 pezeta.

Zarautz. Langaitz plaza. 2 logela eta banugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegria. 3 logela, banugela eta asnoa. Terraza handi hegoaldera. Bete ederrak. 50.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean. 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef. 943-01 07 00 • Fax: 665-31 85 96

Leku hau zure iragarkiarekin zain dago

Etxebizitza higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

SALGAI

AMARA Aitua. Terrasa. 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Berritua. 47.000.000 pta

AMARA Aitua. Batain Baina. 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Terrasa. 48.700.000 pta

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Aitua. Batain. 41.000.000 pta

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Terrasa. 66.200.000 pta

AMARA Ferreras. Logela, sukaltzea, egongela, banugela. Berritua. 48.000.000 pta

GIROS Apartamentu oso polita. Logela-egongela-sukaltzea, banugela. 28.000.000 pta

ERDIALDEA Urtebera. Logela, sukaltzea, egongela, banugela. Batain. 48.000.000 pta

ANTIGOO Milla. 2 logela, egongela, sukaltzea, banugela. Batain. 30.000.000 pta

INTERRONDO. 2 logela, sukaltzea, banugela. Batain. Batain. Berritua. 37.000.000 pta

EGIA Naramanga Arre. Irugaritza. 2 logela, sukaltzea, banugela. Berritua. 41.000.000 pta

MARTUTENE 2 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Berritua. 51.000.000 pta

BERRERA 2 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Berritua. 36.200.000 pta

LARRATZO Aitua. Batain. 2 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Irugaritza. 37.000.000 pta

BIZKALDEA 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Terrasa. 28.000.000 pta

ALZEA 2 logela, egongela, sukaltzea, banugela. Traxelekuzaren. 24.000.000 pta

ALZEA 100m². 4 logela, sukaltzea, egongela, banugela. 30m²ko terraza. 46.000.000 pta

ASTIARRASA 2 logela, sukaltzea, egongela, banugela. 28.000.000 pta

PASAI SAN JUAN Berritua. 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Terrasa. Batain. 34.000.000 pta

ERRERERIA Irugaritza. 2 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Terrasa. 27.000.000 pta

BEZUELA 100m². 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Terrasa. Batain. 43.000.000 pta

ALOKARJUAN

EGIA Lof berritua. Logela, sukaltzea, egongela, banugela. 4000

AMARA 3 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Batain. 3000

GIROS Irugaritza. 2 logela, sukaltzea, egongela, banugela. Berritua. 3700

AMARA, ANTIGOO Eskaria bitarteko pisua. 2. eta 3. logela. 1400 7000

www.etxebizitza.net

INMOKOSTA
INMOBILIARIA

www.inmokosta.com
9 4 3 - 8 3 5 5 1 8

Orape, 20 - behe • 20800 Zarautz



17°
5°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** La Serrada elkarteak antolatuta eta Tolosako Altzoan elkarte bideratzen ari den Hez-kuntza eta Heziketaren inguruko jardunaldian bigarren saioa izango da gaur haur liburute-gian, 17:30ean. Maite Sanchez Pinuagaren *Indarkeriaren jatorria eta prebentzioa* hitzaldia bideo bidez emango dute eta ondoren, solasaldia egingo dute parte-hartzaileen artean.
- **Villabona.** II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketaren lehen jardunaldia gaur 22:30etik aurrera Gurea zineman. Sarrerak 5 euro balio du eta Kixubi eta Amasa okindegiaren eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen egoitzan eskuratu daitezke.
- **Villabona.** Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako finala bihar Behar Zana elkartearen. Sarrerak agortuta.
- **Tolosa.** Asteburu honetan

- **Cega-ko** (Valladolid) Asocia-cion de Folklore La Rotonda el-karteak izango da herrian. Uda-berri dantza taldeak orain bi urte hasitako elkartrukeengatik etorriko dira Cega-koak. Bihar goizean iritsiko dira eta 18:00etan eskainiko dute emana-ldia Berdura plazan.
- **Ibarra.** Subegi kultur elkarteak bertso afaria antolatuta du bihar-ko. Miren Amuriza eta Julio Soto izango dira bertsoaren. Izena emateko eta txartela erosteko deitu 627 60 61 97 (Txan) tele-fonoa zenbakira.
- **Ibarra.** Lizarra eta Ibarra senidetza dela eta Lizarrako Inauterietara joateko gonbita luzatu dute bi herriek. Hilaren 26ean ospatuko dituzte Inaute-riak baina izena aldeztu aurretik eman behar da eta bihar da az-ken eguna. Horretarako Atari, Zubiaurre edo Gaztetxera jo be-har da.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak

- Behorlegi mendira igotzeko irte-era antolatuta du etziraiko. 07:00etan irtingo dira Tolosa-tik. Izena emateko 688 698 642 telefono zenbakira deitu behar da edo info@oargi.org helbide-ria idatzi.
- **Tolosa.** Astelehenean 19:00etan hasiko da Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuko Ikastn Bitartekotza Zerbitzuak antolatutako Jesus Torquemadaren mintegia. Es-kolak Topic-en izango dira.
- **Tolosa.** Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideak asteartean, hilak 8, 20:00etan kultur etxean bilduko dira «To-losan osasun zerbitzuak pribati-zatzeko egiten ari diren saiaker-» inguruan «herri mugi-mendua» sortzeko asmoz. Bilera irekia da eta herritarrek parte hartzea gonbidatzen di-tuzte.
- **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jar-

- duerretarako diru laguntzak es-eratzeko epea. Eskaerak aurkez-teko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiriak webgunean eskuratu daitezke (www.ibarrakoudala.net) ba-tetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.
- DANTZA**
- **Aduna.** Hip hop dantza ikas-taroa bihar 11:00etatik 13:00etara Asvinenean. Nere izango da irakaslea. Izena ema-teko 20 euro ordaindu behar dira eta asvinenea@gmail.com helbidera idatzi edo 665 73 80 81 telefono zenbakira deitu.
- MUSIKA**
- **Tolosa.** Nahixan taldearen

- kontzertua gaur 22:30etik au-rrera Bonberenean.
- **Tolosa.** Luar Na Lubre Galizia-ko taldeak kontzertua eskainiko du gaur Leidor aretoan 20:30etik aurrera.
- **Tolosa.** Kañeria 13 taldearen kontzertua bihar 22:30etik au-rrera Bonberenean.
- **Zizurkil.** Belarri Jan jatetxean bluesa, reggaea eta swinga lan-tzen duen Monguis taldearen kontzertua bihar 22:30an.
- ERAKUSKETAK**
- **Tolosa.** Nestor Ardanazek zu-zendutako *Jeiki, jeiki* Aranburu jauregian martxoaren 20a bi-tarte.
- **Tolosa.** Wayang Goleken In-donesiako txotxongiloak ikusi daitezke martxoaren 13a bitarte TOPIC-en.
- **Tolosa.** Gko galerian Mixme-dia erakusketak ikusi daiteke ip-irilaren 2a bitarte.

Agurrak



urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Urte askoan!
Aratz eta Manex (Bidania).
Zorionak biharko partez etxekean partez.

Farmaziak

- GAUR**
 - **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
 - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aral-kalea, 25. Telefonoa: 112.
 - BIHAR**
 - **Tolosa.** Olarreaga I. Korreo ka-lea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
 - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Ara-l-kalea, 25. Telefonoa: 112.
 - ETZI**
 - **Tolosa.** Morant, R. Zabalarr-e-ta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
 - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Ara-l-kalea, 25. Telefonoa: 112.
 - ASTELEHENA**
 - **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
 - **Lekunberri.** Campos, M. Z. El-barren, 52. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bertako egunkaria
egin zaitetz harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K.: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: